

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Altzaatarren etxia XX. gizaldixaren hasieran

Beste batian be aittatu gittuan familia famau honen kontuak. **Altzaatarren jatorrixa Bizkaittik** etorren. Altzaa izeneko auzua Markiña ondoko Etxeberri herrixan dago. Oñatin XIX. mendia ren hasierara orduko behintzat agerketan xaku abizen horretakuak eta gure herriko beste liñaje ezagun batzuekin senidetuko dira: Santz edota Gomendiotarrekin, esate baterako. **Juan Antonio Altzaa** lizentziadua Oñatiko alkati a zan 1809xan, Napoleonen tropak penintsulia okupau eta hurrengo urtian; etxakon sasoi samurra egokittu halako kargu baterako. Honen bi seme, **Jose Frantzisko** eta **Joakin Julian**, asko nabarmendu ziran lehenengo karlistadaren inguruko garaixan; burruka latz harein ondorioxoz, Otxandixon hil zan bata eta Zaldibin bestia.

Jose Frantziskoren seme batek suerte hobia euki eben: **Juan Karlos Altzaa Larrañaga**, familia karlista batekua izan arren, nahikua ondo jirau zan gehixenetan liberalak aginttian egon ziran hamarkada gorabeheratsu hareittan. **Letradua** zan bere arbasuak letxe eta **alkate izatera ailegau zan** bere aittajunaren moduan. Haren alkatetza-garaixan (1879-1883) jarri ziran Oñatiko kale eta plazetan oraindiok zutik jarraiket an dauen **itturri monumental ederrak**. Horregatik eta beste meritu batzuegatik, 1896xan hil zanian, **Altzaa** izena ezarri xakon Kale Zahar klasikuari, Zazpibidetatik Kurtzekoraifio.

Baifia **Juan Karlos Altzaak** beste obra inportante bat be burutu eben gerotxuago: Kale Zaharreko bere **jaiotetxiaren birmoldaketa** sakona. Hartarako paraje haretan egozen hiru etxe eretsi eragin zittuan: bata Sarrixaneko ortuko hormak ikuketan zittuan; beste bixak Santzeneko etxiarekin bat egitten euen; eta orube zabal horretan jaso zan 1886xan gaurko argazkixan Altzaatarren egoitza barri eta dotoria. Lan horrein **zuzendarixa Pedro Jose Astarbe** durangarra izan zan, Oñatiko beste hainbat obratan be zerikusixa euki ebena: itturri mumentaletan, kanposantuan, agustiñuetako elizan eta abarretan.

Etxe horretara fan zan bizittera **Damian Lizaur Lasa** arkitekto oñatiarra XX. gizaldiko lehenengo hamarkadetan, **Karmen Gomendio Larrañagarekin** ezkondu ondoren. Horregatik gure ume-denporan etxe hari **Arkitektuarena** esaten xakon eta hantxe ezagutu gittuan Lizaur-Gomendio andra-gizonak euren seme-alabekin. Urte eta gertaera asko pasau dira harrezkero; luzaruan erdi hutsik egon eta gero, palazio antzeko hori zihero **barriztau da barrutik** azkenaldi honetan, lehen egoitza bakarra zan lekuan hainbat bizitza moldauaz. Dana dala, kanpoko itxuria mantenidu egin da gutxi gorabehera.

Ehun urtetik gora eukiko dittuan argazki hau Iñaki Galdosen bittartez heldu xaku; eta argibide batzuk Xabier Zelaiari zor xaugu. Milla esker bixoiri!